

LHKren txostena: EAEko laneko jaiegunen egutegi ofizialari buruzko Dekretu-proiektua



**LAN HARREMANEN KONTSEILUAREN TXOSTENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
2023 URTERAKO LANEKO JAIEGUNEN EGUTEGI OFIZIALA ONARTZEKO DEKRETU
PROIEKTUARI BURUZKOA**

Aurrekariak

2022ko martxoaren 2an Kontseilu honen egoitzan Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak prestatutako Dekretu-proiektua sartu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko 2023 urterako Laneko Jaiegunen Egutegi Ofiziala onartzekoa.

Aipatutako Saileko Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzak testu hori bidali zuen Kontseilu honetara, Lan Harremanen Kontseiluari buruzko otsailaren 23ko 4/2012 Legearen 3.a artikulua xedatutakoa betez, Kontseiluak dagokion txostena egin dezan.

Gogoeta orokorrak

Dekretu-proiektu honek 2023 urterako Euskal Autonomia Erkidegoko laneko jaiegunak ezartzen ditu, hain zuzen ere, laneko jaiegun horiek arautzen dituen uztailaren 28ko 2001/1983 Errege Dekretuan finkatutako jarraibideen markoan.

Aipatutako Errege Dekretuak Estatuaren eremuko laneko jaiegunak ezartzen ditu. Autonomia erkidegoek ezin alda ditzakete horietako batzuk. Beste batzuk, berriz, aldatu egin daitezke, eta dagokion autonomia erkidegoak tradizioz berezkoak dituen beste batzuek ordeztu.

2001/1983 Errege Dekretuak autonomia erkidegoei ematen dien aukeratzeko ahalmen hori modu honetara zehazten da:

- a) Martxoaren 19a ala uztailaren 25a aukeratu ahal izatea.
- b) Errege Dekretuko 45. artikulua lehen zenbakiko d) atalean aipatzen diren jaiak (Ostegun Santua, urtarrilaren 6ko Jaunaren Epifania, eta martxoaren 19ko San Jose edo uztailaren 25eko Santiago Apostolua) tradizioz berezkoak dituzten beste batzuek ordeztea.
- c) Astelehenera eramaten diren jai nazionalak autonomia erkidegoetako jaiak ordeztea; horrela gertatzen da egutegi ofizialean ezarritako jaiak igandean suertatzen denean.

LHKren txostena: EAEko laneko jaiegunen egutegi ofizialari buruzko Dekretu-proiektua



Berariazko gogoetak

Dekretu-proiektuan ezartzen den eta, gero, txostena egin dezan, Lan Harremanen Kontseiluari bidaltzen zaion 2023rako laneko jaiegunen egutegia egiteko aintzat hartu dira aipatutako Errege Dekretuan adierazitako parametroak eta parametro hauek eskaintzen dituzten aukerak.

Dekretu-proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoko 2023rako berariazko jaitzat hartzen du apirilaren 10a, Pazko Garizumako Astelehena.

Jai autonomiko hori aitortzeko erabiltzen den jai nazionala urtarilaren 1ekoa da, Urteberri egunekoa, igandea delako eta, beraz, hurrengo astelehenera aldatuko delako.

Era berean, Dekretu-proiektuan uztailaren 25eko Santiago Apostoluaren jaia aukeratu da, martxoaren 19ko San Jose jaiaren ordeez.

Beraz, jai nazionalak autonomia erkidegoko jaiez ordeztzeko aukera erabili egiten da, 2001/1983 Errege Dekretuak administrazio autonomikoei ematen dien ahalmenaren barruan, txosten honetako gogoeta orokorretan azaldu denez.

Irizpena

Lan Harremanen Kontseiluaren Txostenen Batzordea 2022ko martxoaren 10ean bildu da, 2023 urterako Laneko Jaiegunen Egutegi Ofiziala onartzeko Dekretu-proiektua aztertzeko.

Aipatutako bileran, Confedebaskek, CCOOek eta UGTk izendatutako kideek adierazi dute ados daudela aztertutako Dekretu-proiektuaren testuarekin.

Beste alde batetik, LAB sindikatuaren izenean, Diego González Moyanok adierazi du, aurreko urteetan esan izan duen bezala eta legezkotasun arrunteko gaiak alde batera utzirik, EAEko egutegian ez liratekela jaitzat agertu behar Euskal Herriaren errealitateak arrotz dituen horiek. Zehazki, urriaren 12a, Espainiako Jai Nazionala, eta abenduaren 6a, Espainiako Konstituzioaren Eguna, jaiegun izendatzearen aurka daude, eta Euskal Herriko errealitate kulturalarekin eta asmo politikoekin bat datozen jaiegunak eta ospakizun-motiboak ezartzea proposatzen dute.

Bilbo, 2022ko martxoaren 10a.